

Martxoak 11-12-13 Mendi Tourra Tolosan bederatzigarrenez

- *Mendiko gaiei buruzko 6 filma ikusiko dira, eta hiru egunetarako bonoa eskainiko da 12€tan*
- *Tolosako Udala mendi film laburren lehiaketako irabazle nagusia Mikel Sarasolaren 'Save the Karnali' da eta Tolosaldeko lanik onena 'Tsaranoro. Madagaskar. Eskalatzen munduan zehar' Andoni Arregi eta Imanol Amundarainena*

JAISTEKO MATERIALA

Trailerra + Kartela + Argazkiak + Prentsa Oharra

Tolosa, 2019ko martxoak 7. Bederatzigarren edizioa beteko du Mendi Tourrak Tolosan, Leidorren mendi zinemagintzarik onenaz gozatzeko aukera eskainiko da hiru egunez beste behin. Bilbao Mendi Film Festivaleko ale onenak biltzen ditu Mendi Tourrak. Mendifilmek 11. Edizioa burutu zuen pasa zen abenduan.


Tolosakoa da Mendi Tour zirkuituko hitzordu helduena, eta baita jendetsuena ere. Zine eta mendi zaleek erantzun bikaina eman dute urtea joan urtea etorri, eta Leidorren giro berezia sortzen da oso. Iaz, 1604 ikuslek gozatu zuten kultura eskaintza honetaz.

Bilbao Mendi Film Festivalen 2018ko Epaimahaiaren Saria jasotako 'The Dawn Wall', eta Kirol eta Abentura Film Onena izendatutako 'The Weight of Water' proiektatuko dira besteak beste Leidorren. Eta mendi munduko pertsonaia izarrak izango dira protagonista: Tommy Caldwell eta Kevin Jorgeson 'The Dawn Wall' filman, David Lama eta Kepa Acero 'The Search for the Wooo'-n, Liv Sansoz 'Liv Along the Way'-n, edota Erik Weinhenmayer 'The Weight of Water' filman. Horma handietako eskalada, mendiko eskia, alpinismoa, kayaka, surfa, psikobloca,... emozio bizietarako irudi eta istorioak ekarriko ditu, beste behin, Mendi Tourrak.

Tolosako Udalak eta Tolosa Gasak babestutako edizioa da aurtengoa ere, eta laguntzaile Zineuskadi du. Saioak 19:30ean hasiko dira, eta sarrerak 5 eurotan eskuratu daitezke Leidorreko leihatilan. Aurten hiru egunetarako bonoa sortu da, 12 eurotan eskuratu daitekeena, hiru egunetarako hautua egiten duten ikusleak eta elkarri txanda emanaz aritzen diren familiengan pentsatuz. Filma guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, euskarazko eta gaztelaniazko azpidatziekin lagunduta, eta zeinu hizkuntza interpretazioa ere eskainiko da pelikulen aurkezpenetarako.

Tolosako Udala mendi film laburren lehiaketako irabazleak ere aurkeztuko dira Mendi Tourrean, asteartea hilak 12ko saioan. 'Save the Karnali' film laburra izan da irabazlea, Mikel Sarasola zuzendari donostiarrarena, eta 600 euro dagozkio ditu saritan. Tolosaldeko egiletza duen film labur onena, berriz, 'Tsaranoro. Madagaskar. Eskalatzen munduan zehar' lana da, Andoni Arregi eta Imanol Amundarain tolosarrena, eta 400 euroko saria dagozkie.

Martxoak 11 astelehena




[THE DAWN WALL](#)

Epaimahaiaren Saria BMFF 2018

2015eko urtarrilean, Tommy Caldwell eta Kevin Jorgesonek erronka itzelari egin zioten aurre: Yosemiteko Parke Nazionalan (Kalifornian) dagoen *The Dawn Wall* eskalatzea. Eskalaezina zirudien ia 1000 metroko hormatzarrari eutsi ziotenean, mundu osoaren arreta bereganatu zuten.

Tommy Caldwellentzat, ordea, *The Dawn Wall* eskalada huts bat baino askoz gehiago zen. Esperientzia gogorrek gairiditu behar izan zituen haren bizitzan, eta lorpen hura bizitza osoan zehar jorratutako proiektuaren egikaritzea izan zen.

Dedikazioaren muga obsesioarekin nahastera iritsi zen arte, Caldwell eta bere kide Jorgesonek sei urtez antolatuta eta entrenatu zuten eskalatu beharreko bidea. Azken saiakeran, eta mundu osoa haien peskizan dagoela, muturreko erabakiak hartu beharko dituzte.



[WALLMAPU](#)

BMFF 2018 Sail Ofiziala

****Mundu mailako estreinua Bilbon***

Andeatako pehuentxe herri indigenako biztanleen arabera, unibertsoaren jatorrian korapilatzen dira nonbait Corralco (Txile) eskualdeko sumendi ikusgarria esploratzen duten eskiatzaileen modernitatea eta mapudungunaren marrua, Ama Lurraren hizkuntzaren orroa, alegia.

Martxoak 12 asteartea



[THE SEARCH FOR THE WOOO](#)

BMFF 2018 Sail Ofiziala

***Mundu mailako estreinua Bilbon**

Woo fikziozko sinbolizazio bat da, eremu berrietan esploratzeak eragiten duen zirrara eta dibertsioaren adiera bat. David Lama eskalatzaile eta alpinista ezagunak eta bere lagunak mendiak alde batera utzi eta surfa eta psicobloc-a egingo dituzte Eskozian. Film labur originala, dibertigarria eta psikodelikoa... Kepa Acero surflari ezaguna ere tarteko dela.



[THIS MOUNTAIN LIFE](#)

BMFF 2018 Sail Ofiziala

Martina eta bere ama Tania, 60 urtekoa, sei hilabeteko eski-zeharkaldi batean menturatuko dira, Kanadako mendebaldeko kostaldeko mendi arriskutsuetan barna. Paraje harrigarriez gain, beren abenturan itzal handiko pertsona liluragarriekin egingo dute topo.


Martxoak 13 asteazkena



[LIV ALONG THE WAY](#)

BMFF 2018 Sail Ofiziala

Artean gaztetxoa zela jo zuen Mont Blanc gailurra lehen aldiz, eta une beretik ohartu zen Liv Sansoz mendia zuela maite, eta mendiari loturik biziko zela. Birritan izan da kirol eskaladako munduko txapeldun, eta eskalada mistoan, mendiko eskian eta base-jauzian ere nabarmendu da. Berrogei urterekin, erronka bati ekitekotan da: Alpeetako 4.000 metroko 82 gailurrak urte bakar batean eskalatzea.



THE WEIGHT OF WATER


Kirol eta Abentura Film Onena BMFF 2018

Itsua izan arren, Erik Weißenmayerrek beti aurre egin nahi izan die bere beldurrei. Kasu honetan, itota hiltzeak sortzen dion izuari. Hori dela eta, kayak bat hartu eta AEBetako Grand Canyon edo Arroila Handia zeharkatzea erabakiko du, erronka honetan lagun izango dituen beste taldekide batzuekin.

EVEREST: HERRI OSO BAT GAILURREAN komikiaren erakusketa

Leidorreko harreran 'Everest: Herri oso bat gailurrean' komikiaren erakusketa ikusi ahal izango dute Mendi Tour egunetara arrimatzen direnek. Bilbao Mendi Film Festivalek eta SUA argitaletxeak elkarlanean argitaratutako komikia da, 1974ko eta batez ere 1980ko Everesteko euskal espedizioak eta espediziokideak gogoan dituen. Gertaera historiko hura komikira ekarri zuten Cesar Llaguno marrazkilaria bilbotarrak eta Ramon Olasagasti gidoilari eta testugile tolosarrak –Berrobotarra sortzez-.

Komikiaren lanketa prozesua du ardatz erakusketak. Eta bidenabar, komikia bera, euskarazko nahiz gaztelaniazko bertsioetan, salgai jarriko da Leidorren 8'5 eurotan.



Mendi Tour 2019

Bilbao Mendi Film Festivaleko lan onenak urte osoan zehar ikusteko aukera ematen duen mostra da Mendi Tourra, nazioarteko mendi zinemagintzarik onenaz eta gaur-gaurkoenaz gozatzeko aukera aparta. 2018an 50 hiri edo herritan aurkeztu ziren filmak, Euskadi eta Nafarroaz batera, Errioxa, Kantabria, Asturias, Galizia, Gaztela eta Leon, Madrid, Andaluzia, Valentzia, Katalunia, Aragoi eta Kanaria Handian.

Guztira 14.400dik gora ikuslek gozatu zuten iaz Mendi Tour eskaintzaz. Bilbon egin zen azken Mendi Film Festivaleko lan sarituen maila bikaina da, beraz 2019ko Mendi Tourrak osagarri ezinhobeak ditu mendiko zinema onena, muturreko kirolak, abentura eta natura gaiez josia, ikusi eta gozatzeko irrikaz dagoen oro asebetetzeko.

Mendi Tour 2019 geltokiak

SANGÜESA-ZANGOZA urtarrilak 25 eta otsailak 1

AZKOITIA otsailak 6

LEIOA otsailak 13-14

SONDIKA otsailak 17

CANET D'EN BERENGUER martxoak 2

VITORIA-GASTEIZ martxoak 4-6-7

VIELHA E MIJARAN martxoak 8-9

TOLOSA martxoak 11-12-13

EIBAR martxoak 11-13

ESKORIATZA martxoak 12-15

ZUMARRAGA martxoak 14

AMURRIO martxoak 15

IGORRE martxoak 22 eta 29

PAMPLONA-IRUÑA martxoak 25-26-27-28

HONDARRIBIA apirilak 4-6

CANGAS DE ONIS apirilak 20

AGURAIN apirilak 25

ORONA FUNDAZIOA-HERNANI maiatzak 8

ZALDIBAR maiatzak 9 eta 16

ZARAUZ maiatzak 16 eta 23

...